

Iñaki Antigüedad

Garapen jasangarria:
gaurko garapenaren azaleko ikutu
berdea ala sakoneko eraldaketa



ELA



X XXI. mendeko sindikalismoa lantegietatik, enpresetatik kalera ari da hedatzen, zenbaiti joera hori gustukoa ez zaion arren. Langileak ohartzen dira, izan ere, lanerako jantzia (buzo urdina nahiz bata zuria) kendu eta gero ere langile izaten jarraitzen dutela, gizartean gertatzen den orok eragiten diela eta, langile legez, badutela babestu beharreko interesik.

Honenbestez, ez langileek ez sindikatuek ezin diote bizkarrik eman gure ingurumena babestu eta zaintzeko premiari. Segur aski, kontraesanak sortuko dira gai jakin batzuen inguruan. Langileen euren artean ere sortuko dira tirabirak: batzuek enplegua izatea lehenetsiko dute; beste batzuek, berriz, ingurumena zaintzea.

Nolanahi dela ere, sindikatuok –beste zenbait alorretan bezalaxe– herritarren eta, bereziki, langileen parte-hartzea bultzatu behar dugu garrantzizko gaitan, baita informazio objektiboa jasotzeko eskubidea ere, horixe baita erabakiak kontzienteki eta zuzenki hartzeko bidea.

Iñaki Antigüedad, txosten honen egilea, Euskal Herriko Unibertsitateko Geodinamika Saileko irakaslea da. Artikulu ugari idatzi izan ditu egunkarietan, baita hitzaldi

asko eman ere ingurumenaz, betiere gizar-teari lotutako ekologia aldarrikatuz eta alor honetan erakunde publikoek darabilten jokabidea salatuz.

Garapen jasangarria jorratu digu I. Antigüedadek Manu Robles Arangiz Fundazioarentzat egin duen lehenbiziko lan honetan. Hazkundera eta garapena kontzeptuen artean dabilen nahasketa aztertu du txostenaren egileak. Argi eta garbi aldarrikatu du Antigüedadek "gizartea, ingurumena eta ekonomia biltzen dituen garapen jasangarria" behar dugula.

EAEko ingurumen-estrategiari dagokionez, berriz, eszeptiko ageri da, ez baitu uste estrategia horiek egiazki gauzatuko direnik, ados badator ere erakunde publikoek plaza-ratzen dituzten hainbat asmorekin: herritar-rrak kontsultatu eta mobilizatu egin behar dira; hainbat pentsaera, balio, kontsumo-era aldatu beharra dago... Edozelan ere, ekarpen interesgarria dugu I. Antigüedadek txosten honetan egiten diguna, ELAko militanteoi lagungarri izango zaiguna ingurumen- eta ekologia-gaitan murgiltzeko.

Jose Angel Ulazia

Garapen jasangarria: gaurko garapenaren azaleko ikutu berdea ala sakoneko eraldaketa?

Iñaki Antigüedad Auzmendi

Atarikoak

E Garapen jasangarria modan dago. 1987 urtean agertu zen terminologia hori estreinakoz dokumento ofizial batean ("Gure Etorkizun Komuna" izeneko Brundtland txostenean) baina plaza handirako jauzia Rio de Janeiron 1992 urtean burutu Lurraren Gailurrean gertatu zen. Harrezkero zabalduz joan zen, sakonduz baino gehiago, eta aurten burutu berria den Johannesburgeko Gailurraren inguruan berriro agertu da ahotik ahora.

Hiztun guztiek, ezkerretik eskubira zentrotik pasatuz, dute hori hizkeraren komodina, gehienetan inguruneaz ari direla, ez ekonomiaz; diskurtsoaren leloa. Baina modan dagoena hitzak berak dira (garapena, jasangarria) eta ez, inondik inora ere, kontzeptua, edukina, hots, hitzok duten esannahia. Gauzak beren lekuan ipintze aldera doa oraingo gogoeta, esanak eta eginak aletzera, sindikalgintzatik bertatik

ere horren inguruko eztabaida piztu eta aberastu behar delakoan.

Gogoeta hau bertatik bertara egiteko asmoz Eusko Jaurlaritzak berriki kaleratu duen "Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategia (2002-2020)" deritzona hartu dut abiapuntu eta nire kritikaren erreferentzia, nonbait programa horrek biltzen baititu Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) garapen jasangarrirantz hurbiltze aldera emango diren urratsak. Hitzez hitz hartu dut hortik zenbait gauza, eta letra etzanean idatzi, dokumentu hori ezagutzen ez dutenentzat argigarri

Garapen Jasangarria

Hona Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikoan (Eusko Jaurlaritza, 1998) Garapen Jasangarriaz ematen den definizio eta azalpena.

Hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko aukerak arriskuan jarri gabe oraingo belau-



naldien beharrak asetzen dituen garapen ekonomikoa eta soziala

Definizio hori Nazio Batuen Elkartearen Ingurugiro eta Garapenari buruzko Mundu Batzordeak "Brundtland Txostena" delakotan eman zuen 1987an, eta hori garapen jasangarriaren definiziorik hedatuena dela esan liteke, kontzeptuaren inguruan sortu den hamaika definiziotatik bat besterik ez bada ere.

Garapena gizakien ongizatea baldintzatzen duten kalteak arinduz gauzatzen den aurrerapena dela esan liteke. Beraz, garapenaren lehen helburua giza populazioaren beharrak asetzea izan behar luke. Zenbait egoeratan (Hirugarren Munduko herrialdeen kasuan, adibidez) giza populazioaren beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzu gehiago produzitzea nahitaezkoa da, hau da, hazkunde ekonomikoa eta garapena bat datoz. Hala ere, garapena eta hazkunde ez dira sinonimotzat jo behar. Hazkunde ekonomikoa gizakien ongizatearen aurka jokatzen duten zenbait kalte arintzeko beharrezkoa izan badaiteke ere, honek ez du esan nahi hazkunde ekonomiko hutsa nahikoa denik. Aurretik emandako definizioaren arabera, herrialde baten garapenean hazkunde ekonomikoaz gain populazioaren askatasunak, osasunak, jakintzak eta errentaren banaketaren bidezko tasunak ere zerikusi handia izan beharko lukete.

Honaino Ingurugiro Hiztegi Entziklopediko horretan besteak beste ageri dena. Funtsezkoa da, hor esan legez, garapena eta hazkunde ez nahastea, baina ez bakarrik kontzeptu diferenteak direlako, askotan kontrajarriak ere badirelako baizik. Egungo globalizazio esparruan begibistakoa da banaketa hori egin beharra are gehiago sindikalgintzatik, honek gizartean eragiteko eta okerrak zuzentzeko duen ustezko indar eraldatzailea kontuan izanik.

Baina bada ere aurreko azalpen horretan zer aletu eta zer argitu, izan ere ongizatea, asetzeko beharrak eta konturatu gabe hain errez esaten ditugun holakoak nahiko kontzeptu hutsalak suertatzen dira, hizkeraren komodinak berauek ere, edukinez betetzen ditugun arte. Zer da XXI mendean giza ongizatea? Zeintzuk asetu beharreko beharrak? Egungo globalizazioak ezartzen dituen bideak gure egin behar ditugu ala sakoneko eraldaketa sustatu giza balore berriak gauzatze aldera? Zelan uztartu gaurko munduan ongizatea, asetzeko beharrak eta holakoak elkartasun, berdintasun eta askatasunean oinarritutako gizarte berri baterako bidean? Zelan hori guztia gaurko sistema ekonomizistan?

Zelan gizarte bat modu jasangarrian garatu bera bizi den inguru fisikoaren jasate-ahalmena kontuan izan gabe?. Izan ere garapena ez dagokio bakarrik eskubidedun



gizabanakoz osatutako giza-multzoari, hau da, gizarteari, garapena gizartea dagoen lurraldeari berari ere dagokio, eta funtsezko moduan gainera, lurralde barik ez delako gizarterik. Hortaz, garapena jasangarri egin nahi izateak lurraldearen zentzu fisikoa geureganatzera garamatza, lurraldearen jasate-ahalmena kontuan izatera: *lurralde batek bere produktibitatea eta moldagarritasuna, hitz batez, bere ezaugarri fisikoak, aldatu eta galdu gabe jasan dezakeen gehienezko erabilera-maila (Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikoa).*

Argigarri izan daiteke "Por una Nueva Cultura del Agua" fundazioaren hasierako Adierazpeneko "El reto del Desarrollo Sostenible" atalean adierazia: *Vivimos momentos históricos de transición en los que se cuestiona el modelo vigente de desarrollo. La conceptualización de la ciencia y la técnica como claves de "dominación" de la naturaleza, para promover un desarrollo basado en el crecimiento ilimitado en un Mundo limitado, está dando paso a un enfoque más humilde y sabio, que busca conocer la complejidad del medio natural para integrar nuestro desarrollo en una perspectiva de sostenibilidad.*

Por otro lado, la acelerada destrucción de referentes de identidad colectiva y la devastación cultural que vienen imponiendo este modelo desarrollista y el imperio del llama-

do "pensamiento único", exige la profundización del concepto de sostenibilidad, incorporando la vertiente de los valores y patrimonios socioculturales en lo que se denominaría sostenibilidad ecosocial. Se trata en definitiva de auspiciar un nuevo modelo de desarrollo basado en una ética intergeneracional desde la que el patrimonio natural, social y cultural de los pueblos debería considerarse como un préstamo de las generaciones futuras más que como una herencia de nuestros antepasados.

Jasangarritasuna zehazteak gizartea-ekologia-ekonomia katebidea zehaztea dakar. Honen harira gogoan daukat orain Rioko Gailurraren atarian ginela gailurraren idazkari nagusia izan zenari egindako elkarrizketa bat. Galdera bat honelakoa zen gutxi gorabehera: zer espero duzu gailurretik ateratzea, inportanteena? eta erantzuna: nahikoa litzateke ekonomiaren kontzeptua aldatuko balitz. Bai zera! Hainbat aldarrikapen idatzi ziren han baina funtsean gomen dioak baino ez, ez zegoen han funtsean gobernu eta lobby ekonomikoentzat loteslea zen ezer. Hamar urte pasa dira Riotik Johannesburgera eta ekonomiaren kontzeptuak betiko bera izaten segitzen du: ekonomia ekonomizismoa da, helburu eta helbide, eta puntu. Hortaz ez da batere harrizketa Johannesburg horretan multi-



nazionalak aurrea hartu izana, gobernuen gainetik.

Ekonomizistek apropos nahasten dute garapena (bizi kalitateari dagokio) eta hazkundera (bizi-mailari dagokio, batzuenari behintzat), eta ondorioz sarri askotan dute hazkunde jasangarria hizpide (sindikatuak ere erabiltzen dute hori batzuetan, baina kasu honetan oharkabean egiten dutela pentsatu behar da). Hazkunde jasangarria diskurtso neoliberalaren ikutu berdea egin dute, 1995 urtean Marrakexen lehengo GATT hura Munduko Komertzio Erakunde bihurtu zutenetik aurrera behinik behin. 1992 urteko Río de Janeiroko hartan Lurraren arazoan aurrean estatuen aitziindaritasuna edo onetsi bazen ere, Marrakexez geroztik multinazionalak hartu dute planeta jasangarri egiteko ardura, eta hori nabari gertatu da Johannesburgekoan. Halako bidaidekin nora joan?. Bidaide gogaide behar dugu bide jatorretik abiatzeko, ez horiekin.

Zein da benetako egoera hitz goxo idatzen gainera?. Europako Batasunak 180 graduko bira izango zela esan zuen bere Ingurumen Ekintzako V Programa (1992-2000) aurkeztu zuenean. *Ezin dugu itxaron... eta ezin dugu hutsik egin.* Dena dela, eta hitzez hitz nago orain kopiatzen horren gainera Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategia dokumentuak daka-

rena, Programa (Europakoaz ari da) berraztertzerakoan hainbat arlotan aurrerapenak egin diren arren garapen jasangarria lortzeko bidean aurrera egin nahi bada oraindik zeregin asko dagoela onartu da. Gaur egungo ekonomia-sistemak, berriz, hondakinak asimilatzeke ahalmena eta baliabideak mugagabeak izango balira bezala jokutzen du.

V Programa horren emaitzak ebaluatu dituztenean kezka handia sortu du arlo askotan aurreikusitako joerak (besteak beste, hondakinen ekoizpena etengabe gehituz joatea, geroz eta natur baliabide gehiago kontsumitzea, lurra degradatzea, biodibertsitate galtzea). Are gehiago, ebalazioan aitortu egiten dute hurrengo hamarkadan ingurumen-arazo asko desagertu ez ezik areagotu egingo direla.

Europako Kontseilua kezkaturik omen dago kontsumoaren eta ekoizpenaren ildoen joera kezkagarria delako baldin eta joera horien eragin negatiboak indargabetzeko neurri berriak hartzen ez badira. Horregatik ingurumena babesteko baldintzak lehenbailehen integratu behar dira beste politikan (nekazaritza, garraioa, energia, barne-merkatua, garapena, industria eta arrantza aipatzen dira). Eragin negatiboak indargabetu? Ala joerak berak? Zer indargabetu? Diferentea da oso. Posible al da eragin negatiboak indargabetzea horiek



ezinbestean sortzen dituzten joerak area-gotzen utzita?.

Kezka, bai, Europako agintariengan. *Kezka aurreikusitako hobekuntzak ez direlako gertatu, eta kezka gehiago etorkizuneko joerak okerrera egingo duelako ondorio-tan. Baina kezka horien atzean bada zeozer argigarri: gaurko eredu sozio-ekonomikoa, eredia bera azken batez, da auzian jarri behar dena berak sortzen dituen arazoak, ingurumenean eta gizartean, konponbidean sartze aldera; ezin ondorioak desagertu kausak desagertu gabe, eta hori arazo guztietan gertatzen da.*

Hau honela, normala da Programok helburuak lortu ez izana, ez eta bihar-etziko joerak aldatzeko baliorik ez izatea ere, gaurko eredutik bertatik bideratuak direlako. Kezka azaldu bai eta neurri berriak hartu beharra aipatu ere, baina orain arteko bidearen gaineko kritikarik bat ere ez, zeintzu neurrik orain artekoan porrot egin eta zergatik izan den ardura ez diela; oraingo buruak lehengo lepoan!. Eta hau da sindikalgintzatik egin behar den gogoetaren funtsa: zentzuzkoa al da gaurko ereduak sortzen dituen era askotako eragin negati-boak bazter uztea eredutik bertatik atera gabe?.

Garapen jasangarriaren euskal ingurumen-estrategia

"Garapen Jasangarriaren Euskal Ingu-rumen-Estrategia (2002-2020)" izenekoa 2002 urtean atera du Eusko Jaurlaritzak *euskal gizarteak lortu beharko dituen inguru-men-helburuak eta hortarako konpromiso-ak finkatzeko, gure bizi-kalitatea jasanga-rritasunaren zimentarrien gainean eraiki nahi dugulako*. Estrategiak prozesu gisa hartzen du jasangarritasuna, eredu jasanga-rriagorantz joateko prozesua hain zuzen, eta abiapuntuan argi dio garapenak hiru alderdi hauek izan behar dituela kontuan ezinbestean: ekonomia, gizartea eta ingu-rumena.

Zutabe horiek dira sustatu behar dugun etorkizuneko garapen-ereduaren zutarri saihestezinak. Hau berau da Europako Programetan, besteak beste, ageri dena eta badirudi inork ez duela trilogia hori, testuan behintzat, auzian jartzen. Zalantza bakarra, honaino helduta, zera da: ba al da trilogia horren barruan baldintzaturik eta baldint-zailerik?. Izan ere, ez testutik baizik kaletik ikusita ekonomia jaun eta jabe ageri zaigu, ereduaren zutabe funtsezkoa, eta gizartea-ingurumena menpeko. Ulertzekoa da gero lortu nahi diren emaitzak lortu ez izana. Kezka?.



Euskal Estrategiak bere egiten ditu Europako Estrategiaren epe luzerako helburuak eta helmugak. Hona hemen horiek, laburbilduta.

1. Politika-alor askotan aritu beharra garapen jasangarritasunerako bidean.
2. Klima-aldaketa mugatzea eta energia garbien erabilera areagotzea.

Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murriztea, 2020 arte urtero gutxienez % 1.

3. Osasun publikoaren aurkako mehatxuei aurre egitea.
4. Baliabide naturalak erantzukizun handiago kudeatzea.

Hazkunde ekonomikoa, baliabideen erabilera eta hondakinen sorrera bereiztea (desvincular).

5. Garraio-sistema eta lurraldearen antolamendua hobetzea.

Garraioaren hazkundea BPGaren hazkunderetik bereiztea (desvincular).

Garraioaren erabileran 2010eko errepide-garraioaren kuota 1998koa baino handiagoa ez izatea.

Eskualdeen garapen orekatuagoaultzatzea, ekonomia-jardueran dauden aldeak gutxituz eta landa- eta hiri-komunitateen bideragarritasunari eutsiz.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ingurumen diagnostikoa ageri da dokumentuan, *gaur egungo egoeraren abiapuntua. Asko aurreratu dela onartu behar bada ere, diagnostikoak egoera hobe daitekeela erakusten du. Gaur egun presio handienak eragiten dituzten agente nagusiak honakoak dira: garraioa, industria eta kontsumitzailea bera. Presiook areagotu ere egingo direla aurreikusten da, Europako Estrategian egin legez, garraioari eta kontsumoari dagozkionak batez ere, nonbait industria beste agenteekin alderatuz ingurugiro-integrazioan gehien aurreratu duena baita, enpresetan ingurumena kudeatzeko sistemen ezarpenaren bidez. Honen inguruan ere badute sindikatuek zer kontrolatu eta zer ondorioztatatu.*

Industrializazio ondorengo gizarteetan ingurumenaren gainean presioa egiteko moduak aldatuz doazela nabaria da, eta ikusi egiten zen poluziotik nagusiki kontsumo moko ereduan oinarritutako ingurumen-narriadurara pasatu da. Zuzenagoa da ingurumen gaineke presioerak denborarekin aldatuz joan direla esatea, hor esan moduan, gaur egunean presiorik ez delako, edo kontrolpean direlako, ikuspegi faltsua ematea baino. Izan ere, askotan egun dugun ingurumen narriadura joandako eredu industrialaren emaitza moduan aur-



kezten zaigu, gaur indarrean den ereduak erasorik sortuko ez balu bezala.

Eta bai, sortzen du, inoiz baino handiagoa, gogorragoa, larriagoa, da gaur gertatzen ari den presioa, naturaren eta bere baliabide guztien gainean. Johannesburgeko Gailurrean berriz azaldu den kezka, etengabeko joera hazkorren kezka, horren isla da. Eta paradoxa dirudien arren narriadura handiena garapen jasangarriaz inoiz baino gehiago hitz egiten den unean bertan ari da gertatzen. Esanguratsua oso. Hitzak erabiltzean askoz ere serioago izan behar dugu.

Ingurumenean eragina duten agenteei dagokienez hauxe nabarmentzen du Estrategiak, industria sektoreaz lehentxoago esandakoaz gainera:

- Hurrengo urteetan ahalegin handienak garraioan egin beharko dira.
- Energiaren sektoreak erronkatzat hartu du ekonomia/ingurumena integrazioa eta, produkzio-unitateko energia-kontsumoak murriztean, elkarrengandik zerbait bereiztea (desacoplamiento relativo) lortu du. Bereizketa hori gertatu arren, eta agenteen presioa dela eta, EAEn energia-kontsumo osoa igotzen ari da (nik neuk azpimarratua, oso esanguratsua delako).

Behin eta berriz errepikatzen da testuan zehar zeintzuk diren presio eragile nagusiak: *garraioa, industria eta kontsumoa, eta behin eta berriz ere gorako joerari eutsiko zaiola*. Ez da, ez, abiapuntu egokia onartutako ezintasunean oinarri duena.

En general no se observan a futuro cambios relevantes en las tendencias de crecimiento en los principales agentes causantes de las presiones ambientales, manteniéndose la tendencia al alza en el transporte, la industria y el consumo. Es por tanto necesario buscar herramientas que puedan propiciar un desacoplamiento absoluto entre el crecimiento esperado en esos agentes y los impactos ambientales que generan. Es decir, demostrar que se puede seguir creciendo pero reduciendo a su vez los impactos ambientales que se generan. Askoz ere ekarpen txikiagoengatik eman dira Nobel Sariak!.

Edozein dokumentutan, mardula izanda ere, bada paragrafo edo esaldiren bat besteak gainditzeko dituen. Eta Estrategia honetan, Europakoan ere berdin da, oraingo hau da, nire gustorako behintzat argigarriena. Eta hona lehentxoago egindako galdera bera: Posible al da eragin negatiboak indargabetzea horiek ezinbestean sortzen dituzten joerak areagotzen utzita?. Posiblea al da ondorioak ezabatu kausak beren horretan mantenduta, are gehiago kausok,



joerak, areagotuta?. Desacoplamiento absoluto entre el crecimiento esperado y los impactos ambientales que generan?. Badu honetan ere sindikalgintzak, beste eragile eraldatzaile guztiekin batera, zer hausnartu.

Kasurako, *posiblea al da* helmugen artean lehen aipatutako hori, *berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murriztea, 2020 arte urteko gutxienez % 1, gauzatzea* Euskal Herrian gaur anabasan diren energi egitasmo asko eta askotarikoak ikusita? Energi kontsumoa, neurri benetan zuzentzailek ezean, etengabe gora doala, eta joango dela, jakinda?. Aurtengo uztailean prentsan irakurria: *La demanda de energía eléctrica en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa se incrementó en el 2001 un 4,34 % con respecto al año anterior. El crecimiento de la demanda es continuo, hasta llegar a un 25 % en los últimos diez años; esta tendencia se mantiene en el primer semestre del 2002.* Hiru herrialdeotako Barne Produktu Gordina % 3 igon omen zen 2001 urtean. Hau da, energia elektrikoaren demanda BPG baino arinago doa gehituz. Hori al da desacoplamiento?.

Energiaren merkatuaren liberalizazioak kontsumoa handitzea du helburu, ekonomia ekonomizista jaun eta jabe, interesak interes, eta ez dute energi trafikatzailleek ezelango asmorik inongo desacoplerik egi-

teko, jakin badakitelako, ondo jakin ere, kontsumoaren joera mantentzeko eskaintza-oferta ere handitu egin behar dela, egitasmoak egitasmo, han-hemenka, gas jaurtipen kontuak ardura ez diela (Kioto non den ere askok ez dakite); euren izan dute Johannesburgen kontrol eraginkorra. Baina administrazio publikoari berari ere ez al die horrek ardura?.

Desacoplar. Desvincular ere izan da lehen aipatua, helburuen arteko beste batean: *garraioaren hazkundera BPGaren hazkunderatik bereiztea*. Eta berriro ere jo dut prentsara, jakinminez, esanetatik haratago. Aurtengo ekaineko albistea, Bizkaiko Diputazioak herrialdeko mugikortasunaren gaineko datuak eskeini zituenekoa. *La movilidad por carretera en Bizkaia creció una media del 4,3 %, camino de la congestión de la red.* Igoeraren ehuneko hori energia elektrikoarena bertsua da, beti ere BPGaren igoeraren gainera.

Agintariek azaldu moduan *el aumento del tráfico rodado refleja el crecimiento económico del territorio de Bizkaia, cuyo Producto Interior Bruto se fijó en un 3 %*. Bada honetan ere zer hausnartu. Zelan desacoplatu kausak eta ondorioak reflejo horren aurrean ihesbideak baino ez badira aurreikusten?. Izan ere, agintariek *preservarán en su política de construcción de nuevas infraestructuras, como la Supersur* entre



Arrigorriaga y Trapagaran, y llevarán a cabo campañas de concienciación ciudadana para que se dé un uso más racional al coche. Kontzientziazio kanpainarik ez bedi falta! Baina sosak zementuari!. Desacoplar. Desvincular.

Albistearen beste gauza batzuen artean bada bat deigarri suertatzen dena, oso, merkatalguneen gainekoa, izan ere. *Los técnicos estiman, a fines comparativos, que la intensidad media diaria en estas superficies, de 133.458 vehículos en ambos sentidos, es casi equivalente al 40 % de la circulación que sale y entra por las diez vías de acceso a la capital vizcaina.* Beste modura esanda, horrelako merkatalguneak arazo bihurtzen dira, baina ez bakarrik errepideko garraioari begira merkataritza sarean sorten duen desakopleari begira ere; izan ere, auzo eta herri askotako merkataritza gunek txikiak ikutuak geratzen dira merkatalgune handiak inguruan kokatuta. Are gehiago, gunek horiek bizimodua bera ere aldrebesten dute, gunek lurreko paradisuak bailiren, giza-harremanak eta giza-baloreak desbinulatuz.

Euskal Ingurumen-Estrategiaren lerroen artean honakoa da idatzia: *Mugikortasunaren beharrak murriztea; horretarako ez dira babestu behar motorizatuen eskaria areagotzea eragingo duten hirigintzako jarduerak eta erabilerak.* Ez direla babestu

behar? Baina ez al dira, eginetan, jarduera eta erabilera horiek modu ohartuan babesten? Ez al dira jarduera eta erabilera horiek gaurko progresuaren seinale?. Badugu honetaz ere zer hausnartu. Mugitzeko beharrak murriztu, esan bai baina lerroen azpitik mugitzeko eskubidea ere da aipatzen, autoaren jauntajabetasuna ontzat eman nahian. Ezin da denari amen-amen esan. Apustuak sailkatu egin behar dira, beharra eta nahia, eta norberarena eta kolektiboarena ondo desberdinduz, orain bai desakoplatuz.

Mugikortasuna-Garraioa Lurraldearen Antolamendua-rekin dago lotuta, berez. *Lurralde Oreka eta Mugikortasuna: ikuspegi komuna da, hain zuzen, Euskal Ingurumen-Estrategiaren beste helmuga.* Helmuga honen eta helmuga honekin lotutako helburuen xedea hau da: *lurralde orekatua eta hurbilerrazagoa finkatzea; lurralde horrek interes orokorreko gizartearen eta ekonomiaren arloko jardueren bideragarritasuna ahalbidetu behar du eta, aldi berean, nekazaritzako, hiriko eta itsasertzeko guneen ondarea, aniztasuna, aberastasuna eta natur eta kultur erakargarritasuna gordetako duen lurraldea finkatu nahi da.*

Interes orokorra aipatzen da hor, eta nago ni gaurko eremuan sarritan gertatzen dela orokor horren azpian batzuen interesak ezkatzea. Hortaz, ekonomiarentzat bide-



ragarri den guztia ez da zertan horrela izan gizartearentzat. Interesen arteko gatazka, berriz ere. Lurralde orekatuagoa esaten da, baina gaur eguneko ekinbideak, eginetan, ez doaz lurraldea orekatzera lurraldea deskoplatzera baizik, uztargabetzera, hiriguneak gero eta hiriago eta landa eremuak gero eta bazterrago, hurrunago, neguko astegunetan batez ere, zerbitzu nagusiak gune haietara biltzen direla.

Gaur egitasmo diren garraio-azpiegiturak nolakoak diren kontuan izanik argi dago, nire ustetan, lurraldea desorekatzera doazela, haundienak behinik behin. Horien artean paradigmaticoena, zalantzarik gabe, Abiadura Handiko Trenaren proiektua da, hiriburuak denbora motzean lotzeko helburuz tarteko eskualdeak, landa eremuak nagusi, modu larrian ikututa. Non geratzen da landa eremuon eguneroko biztanleen bizi-kalitatea? Zeren truke galdu euren egunerokotasun esparrua? Ze bide, ze aukera, izan dute biztanle horiek euren ingurua total aldatuko duen proiektuaren gaineko erabakietan parte hartzeko?. Lurralde fisikoan eragina duten proiektuen erabakietan ezin euskaldun batek botu bat esan, aurretik ez bada erabaki esparrua zehazten, bestela beti nagusituko zaio hirigunea landa eremuari. Hori jasanezina da, are gehiago lurralde orekatua helburu bada. Gainera, jakina da, garraioaren joera etengabe haz-

korra izanda, AHT horrek ez duela, inondik inora ere, errepide-garraioa gutxituko, horren lekuko kapazitate handiko errepide gehiago egiten egotea da, anabasan.

Sinestuta nago ni lurralde antolaketak izan beharko lukeen garrantziaz, gaur ematen zaiona baino askoz ere zabalago, sakonago, serioago eta esku hartzaileagoa. Lurraldea zutabe funtsezkoa da, sozio-ekonomia eta sozio-politikarekin batera trilogia uztargarria, garapen jasangarrirako izan edo nazio eraikuntzarako izan, azken finean eraikuntza horrek jasangarri behar du izan, geroan ere mantendu dadin, hurrengo belaunaldiek gorpuztu eta gozatu dezaten.

Hortaz, gaurko eredu neoliberalak lehenesten duen lurraldearen ikuspegi fokuzalearen aurrean, (la importancia de la concentración territorial como elemento central de la nueva productividad y competitividad, Europar Batasunaren esanetan) benetako lurralde orekaren alde egin beharko genuke sektore produktiboak eta zerbitzuak orekatasun hortara bideratuz, eskualdeak biziberritu eta bertoko garapen endogenoa sustatuz. Baina, jakina, ez doa hortara Europako gune-foku ekonomiko indartsuen sare potetsua.

Horra hor, kasuko, Euskal Hiria konurbazio entzutetsua, basamorturako bidean den Zuberotik gertu, oso gertu. Zer da jasangarriagoa, zer garapenagoa, zer nazio erai-



kuntzagoa, konurbazio horren hazkundearen aldeko apustua ala Zuberoaren garapenaren aldekoa? Bien alde ezin egin, merkatuak esleitzen dituelako errekurtsoak eta merkatuak izan badu lehentasuna. Sindikatuek, eta besteok berdin, zer esanik ez, badute zer hausnartu eta zer barneratu diskurtso sindikalean: lurralde orekaren aldeko apustu eraginkorra, horrek dakarren guztiarekin (PTP, PTS, azpiegiturak eta hola-ko plangintzen eztabaidetan benetako eragile eraldatzaile bihurtu).

Azkenekoa

Esanetan den-dena dago asmatuta, eta idatzita. Eginetan dugu asmatu beharra, eta erreferentziak sortu. Esana da garapena eta hazkundera ez direla kontzeptu bera, esana da garapen jasangarriaren funtsa dela gizartea-ingurumena-ekonomia uztarria, esana ere kontsumoaren eta ekoizpenaren ildoen joerak kezkarriak direla. Esana da, hori eta gehiago ere. Idatziak dira helburuak, helmugak, lerro estrategikoak eta konpromisoak. Paperak dena hartzen du. Baina guztiok azaltzen dute kezka geroari begira.

2001eko urtarrilaren 22an Euskal Autonomia Erkidegoaren lehendakariak "Jasangarritasunaren Aldeko Konpromisoa"

izenpetu zuen, European hortaz esaten ari dena Erkidegoratuz. Garapen-eredu berri hori ondorio guztiekin onartzeak oraingo eredian aldaketa sakona eragiten saiatu beharra esan nahi du. *Produkzioan eta kontsumoan portaera berriak sartu behar direla esan nahi du. Poluzioaren eta baliabide-kontsumoaren, hondakinen ekoizpenaren, lurzorua kaltetzearen eta biodibertsitatearen galeraren inguruan konpromiso pertsonala eta soziala hartu beharra esan nahi du. Edonola ere, aldaketa hori ez sustatzeak gure planetaren etorkizuna arriskuan jartzea eta etorkizunean hor biziko direnen ongizatea hipotekatzea eragingo luke.*

Oraintxe bertan sinatzen dut hori, baina ez dut uste funtsean, hitzetatik haratago, biok gauza bera esaten ari garenik. Garapen-eredu berrirako aldaketa sakona eragin? Primeran! Baina zertan egin du huts orain artekoak eredu berri baten beharra izateko? Non da oker eginaren gaineko kritika? Zaharraren okerra zein den jakin gabe zelan eredu berria sortu?. Produkzioan eta kontsumoan portaera berriak sartu? Primeran hau ere! Ulertzen dut aldaketa sakona horietan egin behar izatea, horietan eragiteak berez dakar eragina garraioan, baina zelan egin hori? Prest al dago gaurko merkatu jaun eta jabea bere oinarri dena eraldatzeko portaera berri jatorrekin?. Prest



al dago gaurko administrazio publikoa merkatua baldintzatzeko?. Eta konpromiso pertsonala eta soziala hartzearena, fenomeno! Galdetu dezatela Boroako Zornotzan, Itoizeko Itoizen, AHTko Angiozarren, baserriko baserrian, kasurako, ez al da jende horrena konpromiso sendoa?.

Dokumentu honek jasangarritasunean oinarritutako eredu berria lortzeko konpromiso sendoaren adierazpena izan nahi du dio lehendakariak. Ingurumen-aldagaia sektore-politika guztietan eta, batez ere, industria, garraio, energia, nekazaritza eta kontsumoaren arloko politiketan txertatu beharra dago. Gizarte sektore guztiek dute zeregina jasangarritasunerako bidean; hiritarrak mugiaraztea eskatzen du. Gizarte-eragile guztiek politikak zehazten eta erabakiak hartzen parte hartzen badute, elkartasun-balioak eta ingurugiroarekiko errespetua barneratzen lagunduko du. Gure pentsatzeko era, gure balioak, gure bizimoldeak eta gure kontsumo-ohiturak aldatu beharra dago.

Zirraragarria, benetan. Bat nator, uste dut. Erabakietan parte hartu, jendea mugiarazi, pentsatzeko era aldatu, balioak aldatu, bizimoldeak eta kontsumo-ohiturak ere hau iraultza da! Eta bat nator, uste dut. Baina ez dut uste gaurko eredian oso gustura direnek ereduz aldatzeko apustua eginga dutenik. Esanak eta eginak.

Jasangarritasun kontzeptuaz gogoeta serioa egin beharra dugu, zer den eta zer ez den. Eta benetan eredu berriaren hautua egiten dugunok gaur eta hemen lanean hasi, elkarrekin, kontraesanak kontraesan, erreferentziak sortuz, gizartea, eta lurraldea, beste modu batean ulertu eta gauzak beste modu batean egin daitezkeelako erreferente. Ikuspegi horrekin egin dut gogoeta hau. On egin.

